

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

352 zb.
www.getxo.eus

>> 2021ko Urtarrila



Gazteentzako aholkularitza psikologiko zerbitzua

**Autoestimua arazoak, segurtasun falta
harremanetan, tristura, antsietatea,
arazoak bikote harremanean,
sufrimendua haustura batengatik, etab.**

Nabarmen^{tzekoak}

> Gazteentzako aholkularitza psikologikorako zerbitzu berria

- > Hamar bat proiektu aurkeztu dira Wanted programara
- > EuskarAbenturan parte hartzeko zabalik dago izen-emate epea



Hamar bat proiektu aurkeztu dira Wanted programara

Wanted programaren edizio berri bat abian da. Udalaren Gazteria Zerbitzuak eta Sustapen Ekonomikorako Arloak antolatutako programa da eta bere helburua da gure udalerriko bizitza ekonomiko, soziala, kulturala eta aberasten duten gazteen proiektuak sortzea eta babestea; eta, aldi berean, proiektu horien sustatzaileei esperientziarako, prestakuntzarako eta garapen pertsonal eta profesionalerako aukerak ematea ere.

Aurtengo ediziora hamar bat proiektu aurkeztu dira, besteak beste, zinemarekin, merkataritzarekin, osasunarekin, dantzarekin eta orientazio profesionalarekin lotutakoak. 18 eta 30 urte bitarteko hoberi gazte inguru ari dira proiektu horiek martxan jartzen.

Une honetan, sustatzaileak hainbat sektoretako profesionalen aholkularitza jasotzen ari dira, proiektuak hobetzeko eta, beraz, bertsio aurreratuagoak aurkeztu ahal izateko. Hurrengo urratsa, Wanted tailerra izango da, urtarrilaren 30ean (larunbata). Tailer horretan, egitasmoen sustatzaileek eta profesionalak elkar ezagutu eta hausnarketak eta ideiak partekatu ahal izango dituzte. COVID-19arekin lotutako murrizketen testuinguruak zehaztuko du topaketa presentziala edo telematikoa izango den.

Aurreikusitakoaren arabera, datorren martxoaren amaieran jakingo dira hautatutako proiektuen izenak.

Programa hobeto ezagutu nahi duten lagunek, informazio gehiago eskuratu ahal izango dute www.getxo.eus/gazteria webgunean.

BEKAK SARIAK

* **Arte plastikoaren eta ikus-artearen, arte dramatikoaren, musikaren, dantzaren eta kultur kudeaketaren modalitateetan dirulaguntzak eta bekak**, Bizkaiko Foru Aldundiak deituta. Modalitate bakoitzean, onuradunen adina aldatu egiten da, bai eta dirulaguntza jaso dezaketen gehieneko zenbatekoak ere, bidaia-, ostatu- eta mantenu-gastuak, material-gastuak... Matrikula-gastuak eta jasotako irakaskuntza eta klaseen kuota barne hartzen ditu. Eskaerak aurkezteko epea: urtarrilaren 21etik otsailaren 25era. Informazio gehiago: Foru Aldundia (Errekalde zumarkalea 3, 2.a, Bilbo) eta BAO, 242. zk., 2020-12-17koa.

* **Otxarkoagako Mugarik Gabeko Umeentzako Ipuin Lehiaketa**, Txirula Kultur Taldeak antolatuta, euskaraz edo gaztelaniaz. Idazlaren orri-kopurua, gutxienez orri bat eta gehienez lau orri. Gaia librea da, baina umeei zuzendutako ipuinak eta bakea, tolerantzia, genero berdintasuna, giza eskubideak eta naturaren zaintzari buruzko gaiak baloratuko dira. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 15era arte. Hautatutako pertsonen argitaraturiko liburuen 24 ale emango zaizkie eta beraien ipuinak irakurri ahal izango dute Otxarkoagako Kepa Enbeitza plazan XXXIX. Umeen Jardunaldietan. <https://www.facebook.com/TXIRULA> eta txirulakulturaltaldea.blogspot.com

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Urtarrila

Hilak 15, ostirala: TXAPELKETA: FUTBOLIN

Hilak 20, asteazkena, 23, larunbata, eta 24, igandea: TAILERRA: GRAFFITY

Hilak 26, asteartea: TAILERRA: KOADROAK MARGOTU

Hilak 28, osteguna: TAILERRA: SLIME

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Urtarrila

Hilak 15 eta 22, ostiralak: TAILERRA: MASKULINITATE TOXIKO ETA BIDEOJOKUAK

Hilak 16, larunbata: LUDOTEKA: JOLASA: SLACLIN

Hilak 20, asteazkena: ESKULANA: ETXEO XABOIA SORTZEN

Hilak 23, larunbata: ESKULANA: MANDALA-ISPILU BAT EGITEN

Hilak 29, ostirala: TAILERRA: URBAN ART: DISEINU SORTZAILEA

Hilak 30, larunbata: IRTEERA: KITCHEN ACADEMY

Gazteentzako aholkularitza psikologikorako zerbitzu berria

Udalaren Gazteria Zerbitzuak gazteentzat azaroan irekitako sexu-aholkularitza zerbitzua zabaltzea erabaki du. Bi ildotan egingo da zerbitzuaren zabaltze hori: alde batetik, sexu-aholkularitza eskaintzen jarraituko da aholkularitza psikologikoko zerbitzu zabalago baten barruan; eta bestetik, zerbitzuaren hartzaile izango diren pertsonen adina 30 urtera arte igoko da.

Gazteria Zerbitzuak, pandemia egoerak eragindako ondoeza psikologikoen gorakada hartu du kontuan, besteak beste, zerbitzua zabaltzeko erabakia hartzeko. Aholkularitza psikologikoko zerbitzuak ondoeza horiei erantzuna eman nahi izango die.

Horregatik, Udal Gazteria Zerbitzuak 13 urtetik 30 urtera bitarteko Getxoko gazteentzako aholkularitza psikologikoko zerbitzu berria abian jarri du urtariletik aurrera. Hala, zerbitzu honen helburua, gazteen zalantzak argitzen saiatzea ezezik, autoestimua-



rekin, harremanetan segurtasun faltarekin, tristurarekin, antsietatearekin, bikote harremanekin, haustura batek eragindako sufrimendurekin eta antzeko gaiekin zerikusia duten ondoezei aurre egiten laguntzea izango da.

Zerbitzua Algortako Gaztele-

kuaren lokaletan eskainiko da hilean bi astelehenetan, arratsaldean, eta hilean bi ostegunetan, goizez. Zerbitzua erabilteko alde aurretik hitzordua eskatu behar da 685704118 telefonora deituz ala aholkularitzapsikologikoa@getxo.eus helbidera mezu bat bidaliz edo idatziz.

Osasun egoerak bermatuz gero, espedizioa bueltan egongo da udan EuskarAbenturan parte hartzeko zabalik dago inskripzio epea

Osasun egoerak bermatuz gero, EuskarAbentura bueltan egongo da aurtengo uztailean. Zabalik dago izen-ematea 2004 eta 2005 urteetan jaiotako gazteentzat, 16-17 urtekoak, abenturan parte hartzeko. Espedizioak euskararen biziberritze prozesuari erantzun nahi dio, baita estuki lotzen zaion unibertsoari ere: aisialdia, kultura, ingurunearen ezagutza eta harremanak. Jasotako proiektu guztiak Eusko Ikaskuntzako eta PuntuEus Fundazioko adituek ebaluatuko dituzte, EuskarAbentura Elkarterekin elkarlanean.

Ekimenean parte hartzeko, martxoaren 12ra arteko epea izango da minutu bateko aurkezpen bideoa eta banakako proiektu bat aurkezteko. Izan ere, antolatzaileak, EuskarAbentura Elkartek, proposatutako hiru gaietako bati buruzko proiektu bat aurkeztu beharko da, proposatzen diren sei formatuetako batean.

Aurten, gogoetarako gaiak hauek dira: *Baserritik Sardexkara*, gizakion elikaduraren kontsumo ereduak gure eta ingurumenaren osasunean duen eraginaren inguruko hausnarketak bideratzeko; *Klik eta post*, gure gizartean irudiari ematen zaion garrantziaren inguruan gogoetatzeko; eta *Adina, jakintzaren iturri*, edadetuen esperientzia aintzakotzat hartzea inoiz baino garrantzitsua delako. Formatuak hauek dira: historikoa, literarioa, ikus-entzunezkoa, musikala, plastikoa



eta sorkuntza digitala. 120 lan garrantzitsuenen egileek doan hartuko dute parte espedizioan.

Uda ibiltari baten irrikaz

Osasun krisiak eraginda, EuskarAbentura elkarteko kideek espedizioa bertan behera uzteko erabakia hartu behar izan zuten, parte-hartzeko izena eman zuten 316 gazteen penararako. Antolakuntzak gazte horiek egindako lana baloratu nahian, 2020ko ediziorako jasotako hautagaitza guztiak kontuan hartuko dira 2021eko espediziorako hautaketa prozesuan (2003an jaiotako gazteenak barne). Edonola ere, gazte horiek aukera izango dute aurkeztu zuten lanaren notari uko egin eta proiektu berri bat aurkezteko.

Halere, elkartetik adierazi

dutenez, "ezin dugu %100ean ziurtatu ohiko ibilbidea jarraituko duen 120 gazte osatutako hilaite osoko espedizioa antolatu ahal dugunik". Izan ere, hirugarren espedizioa unean-unean osasun egoeraren eta indarrean dauden arauen arabera antolatuko da. Uda hurbildu ahala egitasmoari buruzko informazio eguneratua argitaratuko da. "Momentuz alternatiba ezberdinak aurreikusi ditugu: espedizioaren mugikortasuna murriztea, gazte kopurua edota jardueraren iraupena murriztea, adibidez, jende gutxiagoko ekintza laburragoak eginez...", adierazi dute EuskarAbentura Elkartekoek.

Parte hartzeko oinarriak: www.euskarabentura.eus. Sustapen-bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=-cH4LjKpJM8>